

KANALAK

Banaketa Kanala:

- Aplikazioa

Gure bezeroek aplikazioa Google Play Store zein Apple App Store plataformetan izango dute eskuragarri. Horri esker, Android eta iOS gailuak erabiltzen dituzten pertsonak aplikazioa erraz eta modu seguruan deskargatu ahal izango dute, edonoiz eta edonondik.

Plataforma nagusietan egoteak irisgarritasuna eta hedapena bermatzen ditu, erabiltzaile guztiei esperientzia eroso eta bateratua eskaintzeko, erabiltzen duten sistema eragilea edozein dela ere.

- Webgunea

Gure bezeroek webgunea edozein nabigatzaile bidez izango dute eskuragarri, Google-en oinarrituta. Webgunea aplikazioaren antzekoa izango da, erabiltzaileei esperientzia eroso eta bateratua eskaintzeko.

Bertan, etxe eta erresidentzien aukeraketa, erreserba egitea eta ordainketa prozesua modu seguruan eta erraz egiteko aukera izango dute erabiltzaileek. Gainera, webguneak bezeroen arteko chat funtzionalitatea izango du, zalantzak argitzeko eta komunikazioa errazteko.

Horri esker, erabiltzaileek aplikazioan jasotzen duten esperientzia bera izango dute webgunean, edozein gailu edo nabigatzaile erabiltzen dutela ere, eta irisgarritasuna eta erabilgarritasuna bermatzen dira.

Komunikazioa Kanala:

- Unibertsitateak

Unibertsitateetan egiten diren Erasmus+ programaren aurkezpenetan gure aplikazioa aurkezteko akordioak izango ditugu. Lankidetza horien bidez, unibertsitateek atzerrira joango diren ikasleei gure aplikazioaren berri emango diete.

Gure aplikazioak ikasleei Erasmus esperientzia hobeagoa, merkeagoa eta errazago planifikatzeko aukera eskaintzen die, bereziki etxebizitza edo erresidentzia bilatzeko

prozesua sinplifikatuz. Horrela, ikasleen ziurgabetasuna murriztu eta esperientziaren kalitatea hobetzen laguntzen dugu.

- Sare sozialak

Gure aplikazioa sustatzeko eta Erasmus ikasleei heltzeko, TikTok eta Instagram sare sozialak erabiliko ditugu, bakoitza bere ezaugarrien arabera eta helburu zehatzekin.

TikTok: eduki dinamikoa eta esperientzian oinarritua

TikTok erabiliko dugu eduki labur, bisual eta erakargarriak sortzeko, batez ere Erasmus esperientziaren alde emozionala eta praktikoa azaltzeko. Bertan honako edukiak argitaratuko dira:

1. Erasmus ikasleen eguneroko egoerak (etxebizitza bilatzeko zailtasunak, irtenbideak...).
2. Testigantza laburrak: gure aplikazioari esker etxea edo erresidentzia aurkitu duten ikasleen esperientziak.
3. Aholku azkarrak: nola aurkitu etxebizitza seguru eta fidagarria atzerrian.

Helburua da identifikazioa eta biralitatea lortzea, Erasmus ikasleen eguneroko beharrei erantzunez.

Instagram: informazioa, konfiantza eta komunitatea

Instagram erabiliko dugu informazio egituratuagoa eta fidagarriagoa eskaintzeko, baita komunitatea sortzeko ere. Eduki mota hauek partekatuko dira:

1. Post eta carrusel informatiboak: nola funtzionatzen duen aplikazioak, pausoak azalduz.
2. Story-ak: eskaintza berriak, notifikazioak eta eguneraketak.
3. Reels laburrak: TikTok sortutako eduki garrantzitsuen moldaketak.
4. Gida praktikoak: Erasmus ikasleentzako etxebizitza bilatzeko aholkuak, herrialde edo hirien arabera.

Instagramen helburua da markaren sinesgarritasuna indartzea, erabiltzaileekin harreman zuzenagoa sortzea eta aplikazioaren erabilera erraztea.